

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3814

592/2026 EBAZPENA, uztailaren 28koa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Zerbitzu Orokorrren Taldeko burua (Garbiketa) bere kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Apirilaren 10eko 241/2024 Ebazpenaren bidez, Mónica Llona Trapote andrea Zerbitzu Orokorrren Taldeko buru (Garbiketa) izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Mónica Llona Trapote andrea Zerbitzu Orokorrren Taldeko buruaren (Garbiketa) kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlan, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.— Ebazpen honek 2026ko abuztuaren 31ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Interesdunari eta Barakaldo-Sestaoko ESlari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2026ko uztailaren 28a.

Uribeko ESlko zuzendari-gerentea.

E.B. (455/2026 Ebazpena, martxoaren 4koa).

Uribeko ESlko zuzendari medikoa,
PATRICIA RODRÍGUEZ LANDAJUELA.